

KLIMA ALDAKETARI ETA TRANTSIZIO ENERGETIKOARI BURUZKO FORU LEGEA ONESTEA BEHARREZKOA ETA EGOKIA DELA JUSTIFIKATZEN DUEN TXOSTENA

2015eko abenduaren 6an –Parisko COP21 egin zen egunetan–, Nafarroako Gobernuak Red Under2Mou izeneko ekimena sinatu zuen, mundu zabaleko 100etik gora eskualderekin batera, berotegi-efektuko gas (BEG) isurketak murrizteko konpromisoa hartuta, isurketak 2050ean 1990eko mailen azpitik egoteko %80ren eta %95en artean.

2016ko otsailaren 11n, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak Foru Gobernuak premiatzeko ebazpen bat onetsi zuen “plan estrategiko bat egin dezan Nafarroan klima-aldaketaren kontra, Parlamentu honen aurrean aurkeztuko dena, eta Nafarroako gizarteak zabal parte hartuko duena”.

2016ko apirilaren 27an, Nafarroako Gobernuak “Nafarroako Klima Aldaketaren Bide Orria” hasia onetsi zuen, hau da, barne gogoetarako prozesu bat, kanpoaldetik lagundua eta parte hartua.

Nafarroako Gobernuak, 2018ko urtarrilaren 24an hartutako erabakiaren bidez, KLINa-Nafarroako Klima Aldaketaren Bide Orria onetsi zuen, Gobernuan bertan eta gizarte eragile interesdun guztiekin batera, lan, gogoeta eta eztabaida prozesu bat egin eta gero.

KLINarekin batera, 2018ko urtarrilaren 24an bertan, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Energia Plana 2030 (PEN 2030) onetsi zuen, egin beharreko trantsizio energetikoari buruzko helburuak eta jarduketak ildoak ezarrita.

Bi estrategietan, Foru Komunitateak Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Legeak onestea ezarri zen premiazko neurri gisa.

2029ko irailaren 23an eta 24an, Nafarroako Parlamentuak eta Nafarroako Gobernuak klima larrialdiaren adierazpenak onetsi zituzten, beste erakunde batzuek bezala, hala nola Europako Legebiltzarrak, 2019ko azaroaren 28an, eta Espainiako Gobernuak, 2020ko urtarrilaren 21ean.

Nafarroako Gobernuak, Klima Larrialdiaren Adierazpenean, hauxe adierazi zuen: “Nafarroako Gobernuak Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko lege bat onestea aurreikusten du, etorkizuneko erronkei aurre egiteko tresna bihurtuko dena eta Horizonte Berdearen planteamendua sustatuko duena, estatu mailako Energia eta Klimarako Esparru Estrategikoarekin bat” ”.

Pedro Zuazo Onagoitia, Ekonomia Zirkularraren eta Klima Aldaketaren Zerbitzuko zuzendaria

Sinadura jatorrizkoan jasoa dago

